

ARTE ESZENIKO ERRESILIENTEETARA BIDEAN. EL ARBI EL HARTI, MARÍA PAGÉS FUNDAZIOAREN ZUZENDARIA

Dantzak, antzerkiak, zirkuak eta, oro har, arte eszeniko guztiek, beren izaera artistiko eta sortzailea dela kausa, parean egokitu zaizkien gorabehera sozial, politiko eta ekonomiko guztiak gainditzen jakin dute. Hala izan da beti; baina haien **rol humanista birsortzailea** irmotasun are handiagoz aktibatu da krisien une giltzarrietan, edertasuna, emozioa, sen ona, bizitzarekiko konpromisoa eta sentiberatasun kritikoa lehenetsita, obskurantismoaren gainetik.

Gure aro honek, hain zuzen ere, edertasuna, adimen kritikoa eta zentzutasuna ezbaian jartzen ditu. **Trumpen aro teknofaxista** ezaugarritzen dute nartzisismoak, megalomaniak, manipulazioak, arrazismoak, autoritarismoak, nagusikeriak, gutxiespenak, misoginiak, gehiegizko maskulinitate toxikoak, ahalguztiduntasunak, intolerantziak eta indarkeriak, eta gizateriaren orainaldia zertzen du, eta geroa bahitzen. Antibalio horiek egoera ahulean paratzen dituzte Bigarren Mundu Gerraren ondoren Mendebaldean sortutako printzipio handiak.

Plataforma digitalen tronuratzea saminez ikusten ari garen honetan, gizarte liberalak mutatzen ari dira, antolabide sozial, ekonomiko eta sinboliko berri bat taxutzeko. Ekosistema digitalean, **Google, Meta, X, Tik Tok** eta enparauak nagusi diren horretan, jaun feudal berriek balioa bereganatzen dute azpiegituraren, arretaren eta subjektibotasunaren bidez.

Teknofeudalismoaren aro honetan, **zer rol betetzen dute arte eszenikoek** eztabaidarik eta erresistentziarik ez dagoen leku batean? Zer rol izango lukete gure mundu berriari buruzko **balizko gogoeta** batean? Arte eszenikoen eta, oro har, artearen zein **balio defendatu** beharko genituzke **post-artearen aro likidoan**?